

Bizitruk Donostiako Udaleko Ingurumen Zuzendaritzak eta Kalapiek antolatzen duten bigarren eskuko bizikleten merkatua da. Merkatu honetan bizikletez gain, gordailu-salmenta zerbitzuaren bitartez, osagarriak eta motorizatua ez den mugikortasunarekin zerikusia duten beste objektuak (kaskoak, arropa, patinak, patineteak...) sal daitezke.

Donostiatruk-Bizitruk-en helburuak dira berrerabilpenaren bitartez hondakinen sorkuntza murriztea eta mugikortasun eredu iraunkorrak sustatzea.

Azoka hau ekaineko hirugarren larunbatean egiten da **Easo plazan, 10:00etatik 14:00etara**.

### **NAHITAEZ BETE BEHARREKO ARAUAK**

- Pertsona pribatuek soilik sal ditzakete objektuak.
- Saldu nahi diren bizikletak eta/edo objektuak goizeko 08:00rak eta 10:00ak bitartean bertaratu daitezke.
- Bizikleta saldu nahi dutenak adinez nagusiak izan behar dute, NAN-a aurkeztu eta jabetza ziurtatzen duen dokumentua sinatu beharko dute lapurtutako bizikleten salerosketa ekiditeko.
- Bizikleten salmentarako izen-ematea aurrez egin daiteke [www.donostia.eus/donostiatruk](http://www.donostia.eus/donostiatruk) – en edota azoka egunean bertan.
- Online izen-ematea merkatu egun aurreko osteguneko 00:00etan itxiko da.
- Izen-ematea aurrez burutzen duten pertsonak lehentasuna izango dute beren bizikletak salmentan jartzeko garaian.
- Izen ematea egiteko derrigorrezkoa da zenbakiaren bastidore zenbakia adieraztea. Normalean serie edo bastidore zenbakia pedal-ardatz azpian edo eranskailu bitartez adierazita dago.
- Bizikleten prezioak ez ditu 300€ gaindituko, bizikleta elektrikoak salbuetsita.
- Pertsona bakoitzak gehienez 3 bizikleta sal ditzake.
- Kalapie elkarteko kideak arduratuko dira bizikletak zaindu eta saltzeaz, salmentan jartzen den bizikleta bakoitzeko 3€ kobratuko dituzte.
- Antolatzaileek ez dute inolako ardurarik salerosketa nahiz bizikleten egoerari dagokionean.
- Antolatzaileek ez dute inolako ardurarik lapurreta kasuan.
- Larunbatean bertan, 14:00etan, salmenten dirua edo saldu ez dena jasotzera itzuli beharko da.

### **GORDAILU-SALMENTA ZERBITZUA:**

- Mugikortasun iraunkorarekin zerikusia duten objektuak soilik utzi daitezke.
- Pertsona bakoitzak gehienez 5 objektu utzi ditzake.
- Objektuak 09:30etatik 10:00etara bitartean utzi daitezke eta dirua nahiz saldu ez diren objektuak 14:00etan jasoko dira.
- Donostiatruk-eko taldeak kudeatuko du mugikortasun iraunkorarekin zerikusia duten objektuen gordailu-salmenta zerbitzua.
- Antolatzaileek ez dute erantzunkizunik hartuko objektuek jasandako kalte edo galerengatik.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**